

Arantzazu *Bitoriano Gandiagaren Begitan*



Arantzazu ederra da (2)

Arantzazu zein kanpotik
zein barrutik, ederra da
edozein ikuspuntutik.
Kanpotik gustagarria,
barrutik gustu bera da:

Lehengotik erakartzen
zaituen arkitektura
zaizu galanki azaltzen,
amaren etxe nasaiko
sukalde handi modura.

Sukalde handi modura,
barru hedatsu prestuan,
argiluna ta lilura;
eta giro atsegina,
bakezko xarma puntuan.

Ohol epela da nagusi
sapaiz, lurzoruz, absidez,
ohol epela da nagusi;
eta margoen mandatu
erlaxagarria airez.

Beirateek fin eralgia,
kolorezko musika da
argilunean argia,
gorteiatuz askotara
birjinaren irudia.

Olerki luzeago baten bigarren zatia da hemengo hau. Arantzazutik paisaia eta lurraldearen ederra kantatzen ditu hartan; Arantzazuko eliza barruaren ederra hemengo honetan. Lehengo zatiarekin batera azalduta dago horren jatorria, aldizkariaren aurreko zenbakian.

Arantzazuko lurralde eta paisaia hain erakargarriak gozatu ondoren, eliza barrura sartzen da Gandiaga, horren harrizko kanpo-arkitekturaz harrituta. Egia esan, poetarentzat ez dago etenik Arantzazun: naturatik kulturara, bietatik espiritura.

Elizaren kanpoaldeko harrizko hotzaren kontraposizioz barrualdeko egurrezko beroa

nabari du; Amaren, Andre Mariaren sukalde gozoa da, Arantzazuko eliza, erromes eta bisitariei txerazko abegia egiteko.

Bertako bakezko giroak, argi-ilun atseginak, Luzio Muñozen abside zabalaren zur zizelkatuaren margoek, X. Alvarez Eulateren gurutzadurako bi beirateen koloreek betetzen dute barne-giroa, atseginez betetzera poeta.

Berezkoa du Gandiagak bidea: Arantzazuko lurraldearen ederra sentitu eta mirestetik, Basilikaren barrunbearen misterio espirituala bizi eta gozatzerako. Txillidaren ate apalak errespetuz igaro, eta hantxe zabaltzen zaio espirituaren espazioa.